



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA





## 1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

*Obra handiko lizentzien kopuruak behera egin du Euskal Autonomi Erkidegoan 2019ko laugarren hiruhilekoan, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai urte arteko terminoetan..*

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera (EEEE), 2019ko laugarren hiruhilekoan obra handiko 766 lizentzia eman zituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalek. Emaidza horiek 2019ko hirugarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino nabarmen txikiagoak dira, 55 lizentzia gutxiago eman baitira; horrek esan nahi du %6,7ko beherakada izan dela termino erlatiboetan. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, jarduerak behera egin du: 48 lizentzia gutxiago onartu dira, hau da, %5,9 gutxiago.

Bizkaian eman dira hiruhilekoko obra handiko lizentzien ia erdiak (%50,6), 388 guztira. Araban, 208 lizentzia eman ziren, guztien %27,2. Gainerako 170 lizentziak, guztizkoaren %22,2, Gipuzkoari dagozkio.

Bizkaian eta Gipuzkoan, obra handiko lizentzien kopuruak behera egin du 2019ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean; Araban, berriz, gora egin du pixka bat. Bizkaian, beherakada handiena izan duen lurraldean, artatutako lizentzien kopuruak %11,6 egin du behera erreferentziako aldirian (51 lizentzia gutxiago). Gipuzkoan jaitsiera txikiagoa izan da, %6,1ekoa (11 lizentzia gutxiago), eta Araban 7 lizentzia gehiago eman dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hau da, %3,5 gehiago.

Emandako lizentzien urte arteko emaitzei dagokienez, Gipuzkoak soilik eman ditu emaitza positiboak, oro har. Araban, 10 lizentzia gutxiago eman dira 2018ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, hau da, %4,6 gutxiago. Bizkaian, urte arteko jaitsiera 51 lizentziakoa izan da, eta aldi horretan jaitsiera erlatiboa %11,6koa izan da. Gipuzkoan, emandako lizentzien kopuruak gora egin du kopuru absolutuetan: 13 lizentzia gehiago eman dira, hau da, %8,3 gehiago, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

*2019ko laugarren hiruhilekoan emandako lizentzien %85,4 birgaitze-obrei lotuta daude.*

2019ko laugarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia-moten** araberrako banaketan aurreko hiruhilekoetan ikusitako joerari eutsi zaio, eta argi eta garbi nagusitu dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehazki, erreferentziatzko hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien %85,4 dira, lizentzien %12,4 eraikuntza berriko eraikinetarako izango liriteke (2019ko hirugarren hiruhilekoan %14,3 baino gutxiago) eta %2,2 eraispenetarako. Kopuru absolutuak honako hauek dira: birgaitzeko 654 lizentzia (2019ko hirugarren hiruhilekoan baino 37 gutxiago, %5,4ko jaitsierarekin), 95 eraikuntza berriak egiteko (22 lizentzia gutxiago, %18,8ko jaitsierarekin) eta 17 eraisteko, hirugarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino 4 gehiago.



Eraikuntza berriko lizentzien eta birgaitzekoen zatiak, emandako lizentzia guztiekiko, ñabardura txiki batzuk ditu aztertzen den lurralde historikoaren arabera. Araban eta Gipuzkoan, eraikuntza berriak pisu erlatibo zertxobait handiagoa du Bizkaian baino: Bizkaian emandako obra handiko lizentzien %16,3 eta 15,3, hurrenez hurren. Birgaitzeko obra handiko lizentzietz dagokienez: Bizkaian birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien %89,4 dira, baina proportzioa %81,7ra iristen da Araban eta %80,6ra Gipuzkoan.

#### 1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2019ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	<b>Guztira</b>	<b>766</b>	<b>100,0</b>	<b>-55</b>	<b>-6,7</b>	<b>-48</b>	<b>-5,9</b>
	Oinplano berria	95	12,4	-22	-18,8	-12	-11,2
	Birgaitzea	654	85,4	-37	-5,4	-35	-5,1
	Eraispena	17	2,2	4	30,8	-1	-5,6
Araba	<b>Guztira</b>	<b>208</b>	<b>100,0</b>	<b>7</b>	<b>3,5</b>	<b>-10</b>	<b>-4,6</b>
	Oinplano berria	34	16,3	-3	-8,1	1	3,0
	Birgaitzea	170	81,7	11	6,9	-6	-3,4
	Eraispena	4	1,9	-1	-20,0	-5	-55,6
Bizkaia	<b>Guztira</b>	<b>388</b>	<b>100,0</b>	<b>-51</b>	<b>-11,6</b>	<b>-51</b>	<b>-11,6</b>
	Oinplano berria	35	9,0	-10	-22,2	-8	-18,6
	Birgaitzea	347	89,4	-42	-10,8	-44	-11,3
	Eraispena	6	1,5	1	20,0	1	20,0
Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	<b>170</b>	<b>100,0</b>	<b>-11</b>	<b>-6,1</b>	<b>13</b>	<b>8,3</b>
	Oinplano berria	26	15,3	-9	-25,7	-5	-16,1
	Birgaitzea	137	80,6	-6	-4,2	15	12,3
	Eraispena	7	4,1	4	133,3	3	75,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa

#### 1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa



**2019ko hirugarren hiruhilekotik laugarrenera bitartean**, behera egin du eraikuntza berriko lizentzien kopuruak lurralde guztietan: Araban (-%8,1, 3 lizentzia gutxiago), Gipuzkoan (-%25,7, 9 lizentzia gutxiago) eta Bizkaian (-%22,2, 10 lizentzia gutxiago). Birgaitzeko lanen kasuan, Bizkaian eta Gipuzkoan behera egin du (-%10,8 eta -% 4,2, hurrenez hurren), eta Araban gora egin du termino erlatiboetan (+%6,9).

**Urtetik urterako bilakaerari dagokionez**, obra berriko lizentzien kopuruak behera egin du EAEn, %11,2; izan ere, 2018ko laugarren hiruhilekoan baino obra handiko 12 lizentzia gutxiago eman dira. Gipuzkoan eta Bizkaian bilakaera okerragoa izan da eraikuntza berriko lizentzien kopuruan: %16,1 eta %18,6 jaitsi dira, hurrenez hurren. Araban, gora egiten duen lurralde bakarra izanik, inpaktua minimoa da (+%3,0 lizentzia bati dagokio).

Era berean, EAEn behera egin du birgaitzeko lizentzien kopuruak 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko hiruhileko beraren artean (-%5,1). Beharakada hori Arabak (-% 3,4) eta, neurri handiagoan, Bizkaiak (% 11,3ko jaitsiera) partekatzen dute, Gipuzkoak berriz %12,3ko igoera izan du.

***2019ko laugarren hiruhilekoan, urtetik urterako aldakuntza metatuek beherakada txiki bat erakusten dute lizentzien emateen kopuruan, batez ere eraikuntza berriko lizentzien kopuruak izandako beherakadaren ondorioz.***

**Urteko datu metatu horiek** 2019ko lehen hiruhilekoaren eta urte bereko laugarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte, aurreko urteko hiruhileko beretako (2018ko lehen hiruhilekotik laugarrenera) urteko metatuarekin alderatuta. Kopuru absolutuetan, 25 lizentzia galdu dira, aurreko aldi konparagarrian baino %0,8 gutxiago. Beherakadarik handiena eraikuntza berriko lizentzien kasuan izan da, %8,2ko jaitsiera izan baitu EAE mailan (39 lizentzia gutxiago). Aitzitik, birgaitzei dagokienez, gorakada erregistratu da (+% 0,8) (22 lizentzia gehiago). Eraisteko obra eskusiboetarako emandako lizentzien kopurua %10,5 jaitsi da, 8 lizentzia gutxiagorekin.

***2019ko laugarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaera negatiboa da eraikuntza berriko lizentziei dagokienez, Gipuzkoan izan ezik. Birgaitzeko obretarako emandako lizentziei dagokienez, hazkundera antzekoa da lurralde guztietan***

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, agerian geratzen dira hainbat dinamika.

Gipuzkoan ia ez da nabaritu azken urtean metatutako lizentzien kopurua aurreko urteko aldi berarekin alderatuta (-%0,4, 3 lizentzia gutxiago eman dira). Balio absolutuetan gora egin dute eraikuntza berriko lizentziek eta birgaitzeko lizentziek (2 lizentzia gehiago kasu bakoitzean), eta eraisteko 7 lizentzia gutxiago eman dira..



## 2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2019ko 1. hiruhil. 2019ko 4. hiruhil.		Metatua 2018ko 1. hiruhil. 2018ko 4. hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	<b>Guztira</b>	<b>3.304</b>	<b>100,0</b>	<b>3.329</b>	<b>100,0</b>	<b>-25</b>	<b>-0,8</b>
	Oinplano berria	436	13,2	475	14,3	-39	-8,2
	Birgaitzea	2.800	84,7	2.778	83,4	22	0,8
	Eraispena	68	2,1	76	2,3	-8	-10,5
Araba	<b>Guztira</b>	<b>827</b>	<b>100,0</b>	<b>820</b>	<b>100,0</b>	<b>7</b>	<b>0,9</b>
	Oinplano berria	133	16,1	136	16,6	-3	-2,2
	Birgaitzea	673	81,4	664	81,0	9	1,4
	Eraispena	21	2,5	20	2,4	1	5,0
Bizkaia	<b>Guztira</b>	<b>1.744</b>	<b>100,0</b>	<b>1.773</b>	<b>100,0</b>	<b>-29</b>	<b>-1,6</b>
	Oinplano berria	178	10,2	216	12,2	-38	-17,6
	Birgaitzea	1.541	88,4	1.530	86,3	11	0,7
	Eraispena	25	1,4	27	1,5	-2	-7,4
Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	<b>733</b>	<b>100,0</b>	<b>736</b>	<b>100,0</b>	<b>-3</b>	<b>-0,4</b>
	Oinplano berria	125	17,1	123	16,7	2	1,6
	Birgaitzea	586	79,9	584	79,3	2	0,3
	Eraispena	22	3,0	29	3,9	-7	-24,1

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa

## 2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatuaren datuak 2019ko 4. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta Ehunekoa bertikalak)




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa

Araban, 7 lizentzia gehiago izateak esan nahi du urtetik urterako hazkunde metatu txikia izan dela,%0,9koa, obra-lizentzia guztien artean, nahiz eta lurralde horretan alde txikiak ikusten diren emandako lizentzien bilakaeran, motaren arabera. Eraikuntza berriko lizentzien kopuruak %2,2 egin du behera urtetik urtera; birgaitzeko lizentzien kopuruak, berriz, gora egin du (+% 1,4).



Bizkaian, berriz, lizentzien kopuruak %1,6 egin du okerrera. Obra-motaren arabera, eraikuntza berriko lizentziek %17,6 egin dute behera urtetik urtera (29 lizentzia gutxiago), eta birgaitzeko lizentziek %0,7 egin dute gora, 11 lizentzia gehiago eman baitira.

### 3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa



## 2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

*2019ko laugarren hiruhilekoan, bizitegi-erabilerarako obra handiko lizentziek okerrera egin dute, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.*

2019ko laugarren hiruhilekoan, obra handiko 749 lizentzia eman ziren eraikuntza berriak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (574, guztizkoaren %76,6) **bizitegi-erabilerako** proiektuekin lotu ziren; gainerako 175 lizentziak, berriz, guztizkoaren %23,4, bizitegi-erabilerarako ez diren proiektuekin<sup>1</sup>.

2019ko laugarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez** diren obra-lizentzien erabilera sektorialari dagokionez, ohi bezala, zerbitzuen erabilerarako lizentziak dira nagusi (lizentzia guztien %66,3). Industriaren eta energiaren sektorerako edo lehen sektorerako bideratutakoak %29,7 eta %4 dira, hurrenez hurren.

2019ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean emandako lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, bizitegi-erabilerarako proiektuei lotutako lizentzien kopuruak behera egin du (-% 9,6), eta igoera txiki bat izan da bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (+%1,2).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen emaitza, 2019ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean, industriaren eta energiaren sektorearen (+% 15,6, 7 lizentziari dagokiona) eta zerbitzuen sektorearen (+% 7,4, 8 lizentziari dagokiona) hazkundearekin lotzen da, eta lehen sektorean lizentzien %65 galtzearekin (13 lizentzia, balio absolutuetan).

2018ko eta 2019ko laugarren urteen arteko **urteko** alderaketa negatiboa da, bai bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (-%6,8), bai bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (-%2,8).

<sup>1</sup> Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik kanpo geratzen dira eraipen-obretarako lizentziak, ez baitute inolako erabilerarik egin ondoren (geroago eraikiz gero, beste lizentzia-eskaera bat izapidetu beharko litzateke). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoa duten eraikinak (bizitegi-erabilera dutenak eta ez dutenak) bizitegi-erabileraren kategorian sartzen direla.



### 3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeak)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2019ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
<b>Guztira</b>	<b>749</b>	<b>100,0</b>	<b>-59</b>	<b>-7,3</b>	<b>-47</b>	<b>-5,9</b>
Bizitegia	574	76,6	-61	-9,6	-42	-6,8
Bizitegiak bestelakoa	175	23,4	2	1,2	-5	-2,8
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	7	4,0	-13	-65,0	-10	-58,8
• Industria eta energia	52	29,7	7	15,6	0	0,0
• Zerbitzuak	116	66,3	8	7,4	5	4,5

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa

### 4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa

2018ko eta 2019ko laugarren hiruhilekoen artean bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, zerbitzuen sektoreari lotutakoen kopuruak gora egin du (+%4,5, 5 lizentziari dagokiona), eta lehen sektorean beherakada izan da (-%58,8, 10 lizentziari dagokiona), eta industriaren eta energiaren sektorean ez da aldaketarik izan.

**Urtetik urterako kopuru metatuetan, atzerakada txiki bat gertatu da EAEn emandako lizentzien kopuruan, batez ere jarduera-sektore guztietan bizitegi-erabilerarako ez direnekin lotuta.**

2018ko lehen hiruhilekotik urte bereko laugarren hiruhilekora metatutako urtetik urterako kopuruak 2019ko hiruhileko berei dagozkienekin alderatzean, datuek bizitegi-erabilerarako emandako lizentzien kopuruak apur bat gora egin duela erakusten dute (+%1,6), eta bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziekin alderatuta behera egin duela (-%7,5).



#### 4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeak)


OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2019ko 1. hiruhil. 2019ko 4 hiruhilera.		Metatua 2018ko 1. hiruhil. 2018ko . 4 hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
<b>Guztira</b>	<b>3.236</b>	<b>100,0</b>	<b>3.253</b>	<b>100,0</b>	<b>-17</b>	<b>-0,5</b>
Bizitegia	2.531	78,2	2.491	76,6	40	1,6
Bizitegiak bestelakoa	705	21,8	762	23,4	-57	-7,5
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	73	10,4	86	11,3	-13	-15,1
• Industria eta energia	200	28,4	210	27,6	-10	-4,8
• Zerbitzuak	432	61,3	466	61,2	-34	-7,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2019ko laugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek jarduera-sektore guztiek okerrera egin dutela erakusten dute. Industriaren eta energiaren sektoreak (-% 4,8), zerbitzuen sektoreak (-% 7,3) eta lehen sektoreak (-% 15,1) behera egin dute termino erlatiboetan.

#### 5. grafikoa.. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa



### 3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

*Etxebizitzak eraikitzeko eta birgaitzeko aurreikuspenak hobera egin du hiruhileko honetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina bilakaera negatiboa izan da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.*

2019ko laugarren hiruhilekoan, obra handiko 574 lizentzia eman ziren bizitegi-erabilerarako. Lizentzia horiek 1.199 etxebizitzarekin zerikusia zuten (aurreko hiruhilekoan baino 87 gehiago). Etxebizitza horietatik 931 eraikuntza berriko jarduketekin lotuta daude (guztizkoaren %77,6 dira), eta gainerako 268 etxebizitzak, berriz, birgaitze-prozesuekin<sup>2</sup>.

Komeni da zehaztea inplikaturako oin berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ditzakeela hiru hilean behin, sustapenen tamainaren arabera. Hori kontuan hartuz gero, 2019ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean gorakada antzeman da EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruan (+%8,4). 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko hiruhileko beraren arteko urte arteko zifra aztertuz gero, ikusten da eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspena %35,9 jaitsi dela (521 etxebizitza gutxiago).

Halaber, 2019ko laugarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kopurua hobetu egin da, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+%5,9), bai 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (+%2,3).

*Bizkaian eta Araban, neurri txikiagoan bada ere, jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du gora; Gipuzkoan, berriz, beherakada nabarmena izan da aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta.*

2019ko laugarren hiruhilekoan, **Bizkaian** 720 etxebizitza daude aurreikusita aurreikusitako jarduketetan, horietatik %82,5 oin berrikoak (594 etxebizitza). Lurralde horretan, inplikaturako oin berriko etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du gora aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+%264,4), eta behera egin du 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (-%38,8). Birgaitzeko jarduketekin lotutako etxebizitzaren kopuruari dagokionez (126 etxebizitza), haien bolumena 2019ko hirugarren hiruhilekoan jasotakoen antzekoa da (+%7,7), eta okerrera egin du 2018ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta (-%10).

<sup>2</sup> Birgaitutako etxebizitzaren zenbaketan, ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiago dituzten eraikinetako etxebizitzak, baldin eta eraikinaren elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten badira. Eragindako birgaitutako etxebizitzaren zenbaketan, honako esku-hartze hauek bakarrik hartzen dira kontuan: familia bakarreko eraikinen edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiago dituen eraikin baten bao bat edo gehiago birgaitzea (azken kasu horretan, garatutako banantze- edo bat-egite-prozesuen ondoriozko etxebizitza-kopurua hartzen da kontuan).



**Gipuzkoak**, bestalde, 224 etxebizitzatarako jarduerak eskaintzen ditu 2019ko laugarren hiruhilekoan. Eraikuntza berriko 160 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba oso negatiboa da bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%73,4), bai 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (-%41,6). Birgaitzeko ekintzari dagokionez: aurreikusitako birgaitze-etxebizitzaren kopuruak ere behera egin du (-%34) 2019ko hirugarren hiruhilekoan garatutako jarduketekin alderatuta, bai eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta ere (-%14,7).

**Arabak**, azkenik, 255 etxebizitzatarako jarduketak eskaintzen ditu, horietatik 177 eraikuntza berrikoak. 2019ko hirugarren hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du gora eraikuntza berriari (+%88,3) eta birgaitzeari (+%100) lotutako ekintzetan. Urteko urterako bilakaerari dagokionez, eraikuntza berriko etxebizitzaren kopuruak behera egin du (-%14,9), eta birgaitu beharreko etxebizitzaren kopuruak gora egin du (+%66).


#### 5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa

(Hiruhileko baliu absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA	2019ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko		
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %	
<b>EAE</b>	<b>Guztira</b>	<b>1.199</b>	<b>100,0</b>	<b>87</b>	<b>7,8</b>	<b>-515</b>	<b>-30,0</b>
	Oinplano berria	931	77,6	72	8,4	-521	-35,9
	Birgaitzea	268	22,4	15	5,9	6	2,3
<b>Araba</b>	<b>Guztira</b>	<b>255</b>	<b>100,0</b>	<b>122</b>	<b>91,7</b>	<b>0</b>	<b>0,0</b>
	Oinplano berria	177	69,4	83	88,3	-31	-14,9
	Birgaitzea	78	30,6	39	100,0	31	66,0
<b>Bizkaia</b>	<b>Guztira</b>	<b>720</b>	<b>100,0</b>	<b>440</b>	<b>157,1</b>	<b>-390</b>	<b>-35,1</b>
	Oinplano berria	594	82,5	431	264,4	-376	-38,8
	Birgaitzea	126	17,5	9	7,7	-14	-10,0
<b>Gipuzkoa</b>	<b>Guztira</b>	<b>224</b>	<b>100,0</b>	<b>-475</b>	<b>-68,0</b>	<b>-125</b>	<b>-35,8</b>
	Oinplano berria	160	71,4	-442	-73,4	-114	-41,6
	Birgaitzea	64	28,6	-33	-34,0	-11	-14,7

#### 6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa



*Urtetik urterako kopuru metatuei dagokienez, bai eraikuntza berriaren kasuan, bai birgaikuntzaren kasuan, Araban eta Gipuzkoan izandako igoerek EAEn hobekuntza eragin dute.*

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhileko gorabehera handiak daudenez, komenigarria da emaitzen **urteko dinamika metatua** aztertzea. Horrela jardunez gero, egiaztatu da 2019ko laugarren hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jarduera guztira 5.870 etxebizitzatan dagoela (4.685 eraikuntza berrikoak eta 1.185 birgaitu beharreko etxebizitzak). Horrek esan nahi du %5,2ko igoera izan dela (288 etxebizitza gehiago) 2018ko laugarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Igoera hori eraikuntza berriko jarduketaren gorakadarekin (+% 5,3) eta birgaitzearekin lotutako jarduketekin (% 4,6) lotuta dago.

#### 6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2019ko 1. hiruhil. 2019ko 4 hiruhiler.		Metatua 2018ko 1. hiruhil. 2018ko . 4 hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	<b>Guztira</b>	<b>5.870</b>	<b>100,0</b>	<b>5.582</b>	<b>100,0</b>	<b>288</b>	<b>5,2</b>
	Oinplano berria	4.685	79,8	4.449	79,7	236	5,3
	Birgaitzea	1.185	20,2	1.133	20,3	52	4,6
Araba	<b>Guztira</b>	<b>1.005</b>	<b>100,0</b>	<b>767</b>	<b>100,0</b>	<b>238</b>	<b>31,0</b>
	Oinplano berria	733	72,9	539	70,3	194	36,0
	Birgaitzea	272	27,1	228	29,7	44	19,3
Bizkaia	<b>Guztira</b>	<b>2.713</b>	<b>100,0</b>	<b>3.234</b>	<b>100,0</b>	<b>-521</b>	<b>-16,1</b>
	Oinplano berria	2.171	80,0	2.674	82,7	-503	-18,8
	Birgaitzea	542	20,0	560	17,3	-18	-3,2
Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	<b>2.152</b>	<b>100,0</b>	<b>1.581</b>	<b>100,0</b>	<b>571</b>	<b>36,1</b>
	Oinplano berria	1.781	82,8	1.236	78,2	545	44,1
	Birgaitzea	371	17,2	345	21,8	26	7,5

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa



**7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak**  
(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 4. hiruhilekoa*

Lurraldeen arteko aldeak nabarmenak dira, bai etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jarduketei dagokienez, bai birgaitzeari dagokionez. Arabak eta Gipuzkoak, oro har, antzeko hazkundera izan dute; Bizkaiak, berriz, zifra negatiboak izan ditu. Etxebizitza berriak eraikitzeari dagokionez, Araban jarduerak hobera egin duela ikus daiteke (+% 36), baina bilakaera positiboena Gipuzkoan ikusten da, %44,1eko hazkunderarekin. Bizkaian, aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatua %18,8 jaitsi da. Birgaitze-jarduketetan inplikaturako etxebizitzaren kopuruak gora egin du Araban (+% 19,3), zertxobait jaitsi da Bizkaian (-% 3,2) eta % 7,5 igo da Gipuzkoan.



## 4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAeko 251 udalek igortzen dute hiler. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaitzua edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

### Definizioak.

**Obra handiko lizentzia.** Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

- a. **Oin berriko obra.** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra.** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzorian azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

**c. Eraispin-obra.** Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



## ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2019ko 4. hiruhilekoa

Emaita nagusiak

### AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK .....	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA .....	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA .....	10
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK .....	14
TAULEN AURKIBIDEA .....	16
GRAFIKOEN AURKIBIDEA .....	16

### TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa .	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .....	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa .....	8
4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .	9
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa .....	11
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .....	12

### GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa .	3
2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatutako datuak 2019ko 4. hiruhilekoan .....	5
3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019.....	6
4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa .....	8
5. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	9
6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoa .....	11
7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 4. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .....	13

### Informazio gehiagorako:

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia*

Donostia kalea, 1, 01010 Gasteiz

Telefona: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

Webgunea: [www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak](http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak)

[www.euskadi.eus/ingurumen-estatistikak](http://www.euskadi.eus/ingurumen-estatistikak)

[www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/](http://www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/)

Helbide elektronikoa: [estadísticas-vivienda@euskadi.eus](mailto:estadísticas-vivienda@euskadi.eus)